



1. Zer da enplegu eskaera?

Pertsona batek enpleguko zerbitzu publikoetan (Nafarroan, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuan) bere ekimenez egiten duen eskaera da. Horren bidez, honako zerbitzu hauek jaso daitezke, besteak beste: lan bilaketa, lan eskaintzak, lanbide orientazioa, enplegurako prestakuntza eta langabezia prestazioak edo subsidioak.

Hizkera arruntean, termino hauek erabili ohi dira: «langabezian izena ematea», «langabe gisa erregistratzea», «enplegu hobekuntza egitea», etab.

2. Nork egin dezake enplegu eskaera?

Espainian legez bizi den eta 16 urte baino gehiago dituen edonork egin dezake eskaera.

Bai lana badu baita ez badu ere.

3. Zer dokumentu behar ditut enplegu eskaera egiteko?

- Nortasun agiria: NAN, AIZ edo pasaporte. Atzerritarrek, gainera, Espainian bizitzeko eta/edo lan egiteko baimena dutela egiaztatzen duen dokumentazioa behar dute.
- Agentziaren eremuko helbidea duen erroldatze-ziurtagiria, baldin eta NANean edo AIZn agertzen den helbidea ez badagokio enplegu agentziari.
- Lehen aldiz erregistratu ahal izateko, eskaeran sartuko diren ikasketa edo ziurtagiri profesional guztien tituluak, ziurtagiriak, egiaztariak edo lanbide txartelak aurkeztu beharko dira.

4. Zer egoeratan egon daiteke nire enplegu eskaera?

Enplegu eskaera hiru egoeratan egon daiteke:

Altan. Egoera honetan, enplegu eskaera aktibo dago, eta zerbitzu guztiak jaso daitezke.

Bajan. Enplegu eskaera ez dago aktibo, existituko ez balitz bezala. Egoera honetan ezin da inolako zerbitzurik jaso.

Etenda. Aurreko bi egoeren arteko egoera da. Eskatzailearen aldi baterako egoera baten arabera da, eta justifikatu egin behar du. Arrazoiaren arabera, nahi izanez gero, dagozkion zerbitzuak jaso ditzake. Esaterako, aldi baterako ezintasunagatik (gaixotasunen bat izatea), ikasketengatik (ikastaro bat egiten egotea) eta amatasun/aitatasun atsedendialdiagatik eten daiteke eskaera.

OSO GARRANTZITSUA. Prestazio, subsidio edo beste diru sarreraren bat jasotzen duten pertsonak «Altan» edo «Etenda» izan behar dute enplegu eskaera.

Horrez gain, datu guztiek eguneratuta egon behar dute, bai pertsonalek (helbidea, telefono zenbakia, helbide elektronikoa, etab.) bai profesionalak (tituluak, lanbide txartelak, etab.).

5. Zenbat enplegu eskaera mota daude? Zer zerbitzu eskaintzen dituzte?

Hiru eskaera mota daude:

- Lan bilaketa aktiboa. Lana bilatzeko, eskaintzak jasotzeko eta gainerako zerbitzuak jasotzeko, hala nola orientazioa eta prestakuntza. Eskaera mota hau NAHITAEZKOA da eskatzailea langabezia prestazio, subsidio edo beste diru sarreraren bat jasotzen ari bada edo jaso nahi badu.
- Lanean hasi aurreko zerbitzuak. Orientabide zerbitzuak eta prestakuntza jasotzeko eta lantegi-eskoletan parte hartzeko, bestek beste.



- Lanarekin lotuta ez dauden zerbitzuak. Eskaera mota honek ez du zerikusirik ez lan bilaketarekin ez enplegurako prestakuntzarekin.

6. Zer dokumentu jasoko dut nire enplegu eskaera aktibatzen dudanean (alta ematen dudanean)?

Pertsona batek enplegu eskatzaile gisa alta ematen duenean (eskaera aktibatzen duenean), «Lan txartela» jasotzen du (LEABD izena du dokumentuak). Dokumentu horretan, pertsonaren datuak eta enplegu eskaeraren egoera ez ezik, eskaeraren «Berritze data» ere agertzen da.

7. Zenbat irauten du nire enplegu eskaerak?

Enplegu eskaerak hiru hilabeteko indarraldia du; hau da, eskaera berritzen ez bada, desaktibatu eginen da («Bajan» egonen da). «Lan txartelean» (LEABD) adierazten da zer egunetan berritu behar den eskaera.

8. Noiz eta nola berritu dezaket nire enplegu eskaera?

«Lan txartelean» (LEABD) agertzen den egunean berritu behar da eskaera. Bi egun beranduago ere berritu daitekeen arren, komeni da adierazitako egunean egitea.

Honela berritu dezakezu eskaera:

- **Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aplikazioaren bidez**, NAN/AIZ zenbakia, jaiotza data eta telefono zenbakia idatzita.

Google Play - Android: <http://bit.ly/2KI7Om3>

iOS - App Store: <https://apple.co/2tRkRv3>

- **Telefonoz: 848 42 45 00**. Astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era bitartean, urteko lanegun guztietan.
(Erabiltzaileak kontratatutako telefono-konpainiak finkatzen du dei-kostua)
- **Webgunearen bidez** (www.empleo.navarra.es), «Lan txartela» atalean. Bertan bideoak aurkituko dituzu, eskaera berritzeko azalpenekin, txostenak jasotzen ahalko dituzu (LEABD), datuak aldatu, etab.
- **Hitzorduaren bidez**, aurrez aurre.

9. Noiz egonen da «Bajan» nire enplegu eskaera?

Eskaera «Bajan» egon daiteke hainbat arrazoiengatik. Hauek dira ohikoenak:

- Lanean hasteagatik. Pertsona bat lanean hasten bada –egun batez edo ordu batzuek bakarrik bada ere–, enplegu eskaera «Bajan» egonen da. Beraz, kontratua amaitu ondoren zerbitzu guztiak eskuratu edo prestazioren bat jaso nahi izanez gero, alta eskatu (aktibatu) beharko da.
- Ez berritzeagatik. 7. puntuan azaltzen den moduan, aurreikusitako egunean berritzen ez bada (txartela zigilatu), eskaera «Bajan» egonen da. Eskaera berriro «Altan» egon arte, ezinen da inolako zerbitzurik eskuratu, eta ondorio negatiboak eragin ditzake eskatzaileak jasotzen dituen laguntzetan.

- Erretiroa hartzeagatik, eskatzaileak berak baja emateagatik, etab.

10. Etenaldi egoerak

- **Prestakuntzagatik:** Langabe batek Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren ikastaro presentzial bat egiten duenean, bere eskaera egoera honetan gelditzen da: **“Etenaldia, bitartekotzarik gabe”**. Horrek esan nahi du ez duzula zure eskaera berri behar ikastaroa egiten duzun bitartean, eta ez duzu enplegu eskaintzarik jasoko. Ikastaroa bukatutakoan, zure eskaera berriz aktibatuko da automatikoki.

Posible da enplegu eskaeraren egoera aldatzea ikastaro bat egin bitartean, egoera honetan jartzeko: **“Etenik, bitartekotzarekin, prestakuntza ikastaro batera joateagatik”**. Horrek esan nahi du ez duzula zure eskaera berri behar ikastaroa egiten duzun bitartean, baina enplegu eskaintzak jasotzeko aukera izanen duzu. Honela eskatzen ahal duzu aldaketa hori:

- Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren webgunean (www.empleo.navarra.es), “Demanda de Empleo” atalean, eta, hor sartu ondoren, “Alta, baja o suspensión de la demanda”.
 - Telefonoz, zure enplegu agentziara deituta.
- **Gaixorik bazaude:** Medikuaen baja izanik enplegu eskaintza bat iritsi bazaizu eta hori onartu ezin baduzu bajaran zaudelako, telefonoz deitu behar duzu zure enplegu agentziara, medikuaen baja aurkezteko eta egoera hori kontuan har dezaten, eskaintzarik ez bidaltzeko. Enplegu eskaera eten eginen zaizu, zigilatu beharrik ez izateko.

11.- Nola eguneratu ditzaket datuak?

Eskaera zure curriculumaren hurbilketa bat da. Garrantzitsua da datu guztiak eguneratuta egotea, zure ezaugarrietara egokitzen diren lan eskaintzak bidal diezazkizugun, besteak beste.

Bereziki garrantzitsua da zurekin harremanetan jartzeko datuak eguneratuta egotea: **telefono zenbakia, helbidea eta helbide elektronikoa**.

Honela aldatu daitezke datuak (helbidea, telefono zenbakia, tituluak, etab.):

- Webgunearen bidez (www.empleo.navarra.es), «Eskaera» atalean. Bertan bideo bat aurkituko duzu, bulego elektronikoa sartzeko azalpenekin.
- Telefonoz, dagokizun enplegu agentziara deituta.

Behin baino gehiagotan esan badugu ere, gogoan izan behar da **enplegu eskaera «Altan» edo «Etenda» egotea EZINBESTEKOA dela eskuragarri dauden zerbitzu guztiak eskuratzeko, baita prestazioak eta subsidioak jasotzeko ere**. Halaber, datuek eguneratuta egon behar dute; bereziki, harremanetarako datuek (telefono zenbakia, helbidea eta helbide elektronikoa).